

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4718

AGINDUA, 2014ko urriaren 23koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinen bidez irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi laguntzak ematen baitzaizkie, hain zuzen ere, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko, 2014-2015 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi dutenei.

Kontuan harturik zer dioten Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 23ko Aginduak (agindu haren bidez, irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi dei egiten zaie, hain zuzen ere, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko, 2014-2015 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi dutenei), aurkeztutako eskabideak eta ebaluazio-batzordearen proposamena aztertu ondoren, eta deialdia egiten duen Aginduaren 12. artikulua aplikatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elkarteei honako diru-laguntza hauek ematea, kasuan kasurako zehaztutako zenbatekoetan:

Elkartea	Lurraldea	Diru-laguntza
Gao Lacho Drom	Araba	73.395
Kale dor Kayiko	Gipuzkoa	101.990
Kale dor Kayiko	Bizkaia	194.610
AMUGE	Bizkaia	65.895

Bigarrena.– Honako elkarte hauek egindako eskabideei ezezkoa ematea, zehaztutako arrazoiengatik:

Elkartea	Lurraldea	Arrazoa
Kirol Aunitz kultur eta kirol elkarte	Bizkaia	Behar besteko puntuazioa ez lortzea (12. artikulua)

Hirugarrena.– Diru-laguntza bi alditan ordainduko da:

a) Aurre-ordainketa bat egingo da, diru-laguntzaren % 20koa, emandako laguntza onartu eta berehala.

b) Gainerakoa, diru-laguntza osoaren % 80, bitarteko txostena aurkeztu ondoren ordainduko da. Hartan, proiektuaren ordura arteko garapena zein izan den jasoko da eta ikastetxeetan garatzen ari diren lan-plangintza aipatuko da. Txosten hori 2015ko urtarrilaren 7tik 31ra bitartean aurkeztuko da.

2014ko azaroaren 5a, asteazkena

Laugarrena.– Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 23a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.